



(/)

Europako hizkuntzen berdintasun digitalerantz, euskal partaidetzarekin



Sustatu

2021-04-07 : 09:48

Euskal Herriko Unibertsitatean sortutako Hitz (<http://hitz.eus/>) zentroak, Europako zenbait erakunde akademiko, instituzional eta enpresarekin, European Language Equality (<https://european-language-equality.eu/>) sarea osatu du. Europako Batasunaren egitasmoen barruan, "2030 erako European hizkuntza berdintasun digital osoa erdiestea du helburu" talde honek.



**EUROPEAN
LANGUAGE
EQUALITY**

(<https://media.sustatu.eus>

</media/argazkiak/equ/ele-equ.png>)

Egitekoen zerrenda bat (<https://european-language-equality.eu/deliverables/>) aurkeztuz ireki du webgunea ELE delako sare berriak. Lehen urrats fisa, "Hizkuntzen berdintasun digitala" definitzeko zirriborro bat aurkeztu dute. Datorren urtean, hainbat hizkuntzatarako txostenak aurkeztuko dira, eta hor espero da euskararena.



Digital Language Equality – preliminary definition delako dokumentu hori (https://european-language-equality.eu/wp-content/uploads/2021/04/ELE_Deliverable_D1_1.pdf) gainbegiratu dugu, eta honela definitzen dite hizkuntzen berdintasun digitala.

Digital Language Equality (DLE) is the state of affairs in which all languages have

the technological support and situational context necessary for them to continue to exist and to prosper as living languages in the digital age

Hizkuntzen berdintasun digitala (ingelesez: DLE) egoera bat da non hizkuntza guztiek dituzten aski euskarri teknologiko eta testuinguru jakin bat, bizirik jarraitzeko eta aro digitalean hizkuntza gisa aurrera egiteko.

Hain zuzen ere, hizkuntza baten egoera edo osasun digitala neurtzeko hainbat faktore kontuan hartuko ditu erakunde berriak, teknologikoak eta kontestualak. Faktore horietatik indikadore edo adierazleak definituko dira hainbat hizkuntzarako (horien artean dago euskara) eta adierazleen metrikak transferituko dira beste proiektu batera (Ekimena lotuta dago European Language Grid (<https://www.european-language-grid.eu/>) delako azpiegituerarekin); non algoritmo batek konputatuko dituen, ea berdintasunetik zein puntutara dagoen hizkuntza bat edo bestea.



European Language Equality (ELE) (<https://european-language-equality.eu/>) delako sare honetako euskal partaidea, Hitz Zentroa (<http://hitz.eus/>) (ofizialki Hizkuntza Teknologiko Euskal Zentroa), iaz aurkeztu zen. EHUko Ixa (duela 30 urte jaioa) eta Aholab (duela 20 urtekoa) ikertegien baturatik sortu da Hitz, eta une honetan 59 partaide ditu: 33 irakasleak dira, 12 lagun daude doktoradutza programetan, 7 tesi ari dira bideratzen, eta beste 10 lagun post-doc programetan.



CodeSyntaxek kudeatua, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) (<https://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-704/eu/>) diruz lagundua.